



Elkarbizitzaren kluba

Autorea:

IGNACIO GONZÁLEZ-GARZÓN

ignacio.gonzalez@colegioberriz.com

Praktika garatu den ikastegia:

Berriz ikastetxea. Las Rozas (Madril) • 2016-2017 ikasturtean

- LABURPENA** **Elkarbizitzaren kluba** premia jakin bat asetzeko sortu zen: ikasleen arteko elkarbizitza hobetzea, ez diziplinaz eta erreakziozko ikuspegitik, saihets parte-hartzaile eta proaktibotik baino. Horretarako, Madrilgo Sarean (Club de la Insumisión) lantzen dugun Ikaskuntza eta Zerbitzuaren proiektutik abiatuta, gure elkarbizitzako plana aldatzeari ekin genion, babestea, integratzea, berdintasuna eta jazarpenaren, ziber-jazarpenaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko elkartu ziren ikasle laguntzaileen lau klubuen sorrerak gidaturik, hara:
- **Babesaren kluba:** sexu bietako ikasle laguntzaile “integratzaile” hauek integrazioaren elkarbizitzaren eta denen arteko tratu onaren alde dihardute.
 - **Irudiaren kluba:** sexu bietako ikasle laguntzaile “ziber-mentoreak” izanik, ikaskideekin elkarlanean dihardute, komunikabide digitalak eta sare sozialak segurtasunez erabil ditzaten.
 - **Bestetasunaren kluba:** sexu bietako ikasle laguntzaile “sustatzaile” hauek dibertsitatearekiko errespetua sustatzen dute eta genero-indarkeriaren aurka prebentzioz jarduten dute.



- **Bakearen kluba:** sexu bietako ikasle laguntzaile “bitartekariak”, elkarriketa, elkarlaguntza eta gatazken bakezko konponketa sustatzen dute.

TESTUINGURUA

Ideario kristaukoa bada ere, inongo erlijio-elkarterekin loturik ez dagoen ikastegi honek bi ildotan antolatua dago, goi eta goi-ertain klasekoa da eta bertan sexu bietako ikasleak elkarrekin dabilta hasieratik Batxilerrera arte.

Testuingurua aski kontserbadore eta tradizionala da eta, proposamen berritzaileen aurka, “betidanik honela egin izan dena” finkatzeko helburua du bere bide luzean. Ikasleen ideologiaren ardatza familia eta eskola den arren, haien parte-hartze aktiboa eskatzen duten ekimenei harrera ona egiten diete, dagoeneko nekatuak baitaude beren rol hartzaile pasiboarekin; nolana ere, elkarlanean aritzeko beharrezkoak diren giza baliabide askorik ez dute.

PARTE-HARTZAILEAK

Ikasle, irakasle, tutore, gidari, Zuzendaritza, familia eta eskola-jazarpena prebenitzea xede duten Madrilgo Erkidegoko, Udaleko eta Guardia Zibileko lantaldeak.

BALIABIDEAK

Madrilgo Herritargo Globalerako Hezitzaileen Sarean 2015-2016 ikasturtean egin genuen proiektuan (oraindik, argitaratu gabea) oinarritu gara. “Intsumisio kluba” (Club de la Insumisión) bataiatu dugu eta, bertan, bigarren hezkuntzako ikasleen artean, laguntza-taldeak sortzea proposatu genuen, genero-indarkeriaren aurka prebentzioz borrokatzeko, intsumisio-jarrera batekin, hots, “manipulazioari, samurkeriari eta xantaia emozionalari aurre egitea eta pentsatu, egin edo sentitu behar dugunaren inguruko rol, espektatiba edota balizkorik ez pairatzea”.

Zerbitzu horren helburua zen ikastetxean laguntza-taldeak sortzea (Intsumisio kluba) eta, horien bidez, batetik, hezkuntza-komunitatea sentsibilizatuko genuen eta, bestetik, norberaren izaeraren garapen orekatua eragotz ditzaketen aspektuak atzemango genituen; horri esker, arrisku-faktoreen eta indarkeria sortaraz dezaketen egoeren aurrean esku hartu ahal izango genukeen.

Proiektu honekin, hezkuntza komunitate osoa barne-harturik, luzarora, ikastegiaren bereizgarri bilakatzeko asmoa genuen.

Webean kontsultatu ditugun materialen artean, hauek nabarmenduko ditugu, gure proiektua gorpuzteko duten balioagatik edo begiratzeko ikuspegiagatik:

Elkarbizitzaren inguruko baliabide eta saiakuntzak:

- <http://www.juntadeandalucia.es/educacion/webportal/web/convivencia-escolar/recursos>

- <https://convivencia.wordpress.com/>
- <http://www.kaidara.org/es/conviviendoenlaigualdad>
- <http://www.kaidara.org/es/tenemoschicanuevaenclase>
- <http://www.kaidara.org/es/Tutoriaentreiguales>
- <http://convivesenlaescuela.blogspot.com.es/>

Ikasle laguntzaileak eta eskola-bitartekaritza:

- <http://www.juntadeandalucia.es/educacion/webportal/abaco-portlet/content/09673774-9838-417e-991b-2fbb5b6f9bba>
- <http://www.juntadeandalucia.es/educacion/webportal/web/convivencia-escolar/materiales/bibliografia/ayudante>

Ikaskuntza eta zerbitzua:

- <https://aprendizajeservicio.net/>
- <http://www.zerbikas.es/>
- http://www.ciudadaniaglobal.org/sites/default/files/aps_-_documento_base_j.j.rabanal-16.pdf

Eskola jazarpena:

- http://www.siis.net/documentos/Path/Recursos_para_la_elaboraci%F3n_de_programas.pdf
- https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/docs/yo_a_eso_no_juego.pdf

Heziketa emozionala eta komunikazio-trebetasunak:

- <http://orientafer.blogspot.com.es/2011/09/126-dinamicas-de-educacion-emocional.html>
- https://convivencia.files.wordpress.com/2008/11/habilidades_de_comunicacionfuhem_cip26p.pdf

Ziber-jagoleak:

- <http://ayudantesticsur.blogspot.com.es/>
- <http://www.ciberbullying.com/cyberbullying/2016/05/06/cibermentores-adolescentes-implicados-contr-el-ciberacoso-entre-iguales/>
- <http://www.copmadrid.org/webcopm/recursos/CiberbullyingB.pdf>
- https://drive.google.com/file/d/0BwmG_rAXpAZfdnNIMVVSQnV3S1U/view

NIRE XEDEA

Nolako helburuak lortu nahi zenituen saiakuntza honekin?

Ikastegian, elkarbizitza bestela planteatzen dadin bultzatzea; ikasle-irakasleak, Zuzendaritzako kideak eta familiak jarrera positiboago baterantz sentibilizatzea, zerbitzu jakin baten bidez: ikasleen artean laguntza-taldeak osatzea, elkarbizitza alorreko arazoei aurre egiteko.

Nolako aspektuak landu nahi zenituen, ezagupen, trebezia eta jarrerari dagokienez?

Ezagupenak:

- Dibertsitatea eta identitatea ulertzea; estereotipoak eta aurreiritziak
- Gizarte aldaketa eta, bertan, guk dugun eginkizuna ulertzea
- Genero-desberdintasunez kontzientzia hartzea
- Bizitarako adimen emozionala beharrezkoa dela ulertzea
- Gatazka-kudeaketaz eta bitartekaritza ulertzea

Trebetasunak:

- Eztabaidan aritzeko, hitza izateko eta aktiboki aditzeko gaitasuna
- Negoziatzeko, konpromisoak hartu eta akordioa egiteko gaitasuna
- Zentzuz komunikatzeko eta besteekin kolaboratzeko gaitasuna
- Besteengan eragina izateko eta lidergo elkarbanatua gauzatzeko gaitasuna
- Guzti ongia lortzeko, bere inguruan proiektuak egiteko gaitasuna
- Sentimenduen adierazpenak ezagutu eta onartzeko gaitasuna; norberaren adimen emozionala garatzeko gaitasuna

Jarrerak:

- Kontzientzia kritikoa, ikertzeko eta ez konformatzeko jarrera
- Desberdintasunak berdintasun-jarreraz, indarkeriarik gabe, bizitzeko asmoa Gizarte-justiziarekin eta berdintasunarekin konpromisoa
- Identitatea inklusibotasunez sentitzea, empatia eta bazterketa gaitzestea
- Aldaketa-prozesuetan eragina izateko eta eraginkortasuna izateko zentzua
- Identitate eta autoestimazioa, norberaren balioa sentitzea, ahalduntzea
- Jarrera intsumisioa, hots, gizon edo emakume garen aldetik, egin, pentsatu edo sentitu behar dugun edo behar ez dugunaren inguruko rol, itxaropen eta balizkoak etsipenez onartzeari erresistentzia ipintzea.

**ZER EGIN NUEN ETA
NOLA EGIN NUEN**

Zein aztergairi heldu nien, zuzen nahiz zeharka

- Ekitatea: identitate inklusiboak eta generoa
- Giza Eskubideak
- Gatazken kudeaketa
- Adimen emozionala

Zein printzipio pedagogikoz baliatu nintzen

- Ekitatea: identitate inklusiboak ete generoa
- Giza Eskubideak
- Gatazken kudeaketa
- Adimen emozionala

Zein jarduera eta metodologiez baliatu nintzen

Inspirazio-iturri izan genuen “Intsumisioaren klub” hark OASIS metodologia erabiltzen zuen; zazpi urratsetan garatzen da, hasierako kontzientzia-harrarazte baten ondotik (“**Inpaktu-jardunaldia**”):

- 1. Oniritzizko begirada:** ederra denari, bizi denari, mugiarazten gaituenari, ondo egindakoari erreparatzea, zabaldu ahal izan dadin.
- 2. Estimua:** lokarri emozional eta konfiantzazkoak sortzen dira, elkarlanean eta batera aritu ahal izateko.
- 3. Ametsa:** desiraren ahaltasuna berreskuratzen da, amets indibidual eta kolektiboak berrezartzen dira: egin nahi denarekin amesten da, errealitatea transformatzeko eragile nagusitzat jota.
- 4. Zaintza:** lehorreratzea eta ametsak zerbait fisiko eta ikusgarri bihurtzea, inplikaturiko pertsona guztiek zaindu beharreko proiektuarekin kointzidituko duen konpromisoa finkatuta.
- 5. Ekintza:** eginbide kooperatibo eta komunitarioaz berriro gozatzeko bitarteko den aldetik, lanean elkarrekin aritzea, emaitza soil, zehatz eta ikuskorrak erdiestea helburu izaki, eta proiektuan beste hainbat pertsona pixkanaka nahasiz.
- 6. Ospakizuna:** lorpen kolektiboen gune bat irekitzea; emaitzak komunitateari itzultzea eta egindako lana ospatzea.
- 7. Ber-eboluzioa:** egindakoa berrikusita, amets eta proposamen berriak jasoko dituen prozesuari ateak zabalduko zaizkio.

Elementu horietako batzuk eskuratzen ahalegindu garen arren, gure saiakuntza urratsez urrats egituratzeko astirik ez dugu izan.

Hasierako pizgarri gisa, gure irakaskuntzan finkatuak dauden “funtsezko egun” batzuk (Giza Eskubideen eguna, Indarkeria-ezaren eta Bakearen Eskola eguna, San Balendin eguna, Emakume Langilearen eguna, etab.) ospatzen ditugu eta, horiei, Batxilergoan Holokaustoaren inguruko jarduera batzuk erantsi dizkiegu, urtarrilaren 27an amaituta, Holokaustoaren Memoriaren eta Gizateriaren Kontrako Krimenen Prebentzioaren Eguna ospatuz.

Laguntza-klubekin hainbat gairen inguruko trebakuntza-saioak egin ditugu, hala nola:

- Emozio eta sentimenduak atzeman eta kudeatzeko jarduerak
- Aditze aktiboan zailtzeko jokoak
- Gatazkak konpontzearen inguruko praktikak (bestelako aukerak bilatzea, negoziazioa)

- Izaera esperientzial eta situazionalako dinamikak (talde-jokoak, *role-playing*)

Gela-taldeekin jarduerak egin dira, batez ere, helburuetatik gertueneko alorretan (Tutoretza, Erljioa, Teknologiak, Historia, Filosofia, etab.) irakasle sentsible eta inplikatuaren eskutik. Parte-hartzea handitzea eta saiakuntza hau curriculumean jasotzea berebiziko erronka dugu, proiektuak aurrera egingo badu.

ERDIETSI DITUDAN LORPENAK

Ikasleekin jorratutako herritargo globalaren aspektuetatik zein hobetu dira, zure iritziz?

Hasiera-hasierako fasean gaude: helburua da datorren ikasturtean proiektuaren garapena prestatzea baina ikasleek berriro hona jotzeak pentsarazten digu elkarbizitzarekin, dibertsitatearekiko errespetuarekin eta identitate pertsonalarekin loturiko arazo eta premien aurreko sentsibilitatea areagotzen joango direla eta, bere kasa, proposamenak eta esku-hartzeak bilatu eta gorpuzteko duten gaitasuna ere handituko dela, horiek aplikatzeko ahalmenearekin batera.

Nolako aldaketak gertatu dira eskolako dinamikan, hezitzaile batzuen baitan, zuzendaritza-taldean, etab.?

Aspaldion, elkarbizitza-kudeaketaren eta diziplinaren eredu tradizionalak aski ez direla uste izan delarik, Orientazio Departamentuak, Zuzendaritza taldearekin, bultzaturik erdietsi diren lorpenak interes handiz ikusten dituzte irakasle batzuek.

Ba al liteke inguruan aldaketarik gertatu izana? Nolakoak?

Berrikuntza batere gustuko ez duen eta praktketan biziki indibidualista den hezkuntza-sistema horretan hasiak diren asoziazio- eta kooperazio-dinamikak etorkizun politekoak izan daitezke. Mantso-mantso goaz aurrera, porrotaren beldur handia dagoelako, baina pertsona batzuek aldatzeko asmoak agertu dituzte eta hori asko da, izan.

Zure erdiespenak lortzeari dagokiola, eskola-estruktura eta testuinguruko zein elementu izan dira pizgailu edo eragozpen, zure iritziz?

Didaktika eta edukiei dagokienez, ikastegiak duen izaera tradizionalak hezkuntza-praktika demokratikoago eta parte-hartzaileagoak ezartzea eragozten duen talde-kultura sortarazi du.

Laguntzen ikuspegitik, hasierako bulkada elkarbizitzaren eguneroko kudeaketaz nolabaiteko krisi-kontzientzia izan dela esan liteke: "Bestelako zerbaiten bila goaz, betikoak dagoeneko balio ez duela ikusten ari gara-eta". Beharturiko jarrera honetatik, ordea, planteamendu berrietara ireki gara beldurrez. Orain, gure premia gorriena, dinamika hau jarrera itxaropentsuagoa bihurtzea da eta prozesuak abiarazten dituzten pertsonak animatzea, posible eta arrakastatsu modura ikusiak izan daitezen beraiek.

Ikasleek, familiek, irakasle batzuek eta ikastegiz kanpoko pertsona zenbaitek erdietsitako lorpen txiki horien aurreko erreakzio positibo hori bizkarri ahaltzua izan da eta, halakotzat, ezin dugu alferrik galdu, aldaketa posible eta mesedegarriaren inguruko sentimendu eta sinesmen onuragarriak sortarazten dituelako.

**ONDORIOZTATU
DITUDAN IKASPEN ETA
ERRONKAK**

Hasieran aurreikusi zenituen aspektuak nola ikusten dituzu orain? Zein alderdi hobetu zenezake? Etorkizunean, nola balia zenitzake hobeto zure ikastetxe eta inguruko aukera edota indarrak?

Ikasleen eta familien artean itxaropen-kimuren bat ikusten dut, ahul xamarrak oraino. Ikasle eta familiak, hasi berria dugun ikaskuntza eta zerbitzu-plegu honetan erabateko faktorea izan daitezke, nire ustez.

Irakasleen lan kooperatiboa hobetzea dugu oraindik konpondu gabeko arazoa: talde-kulturarik eza, ordutegi zurruneziak eta lan-aztura finkatuak ditugu transformazioaren eragozle nagusiak.

Horrez gainera, ezinbestekoa da ikasleak ahalduntzea, beraien ekimenak azaldu eta martxan jartzeko unean ausartak izan daitezen, gure hasierako proposamena gidatu duen printzipioari erantzunez.

Hurrengo ikasturteari begira, hasierako saiakuntza hau Bigarren Hezkuntzatik ikastegi osora hedatzea nahi nuke: Lehen Hezkuntza, Batxilergo eta, areago, Haur Hezkuntzara, ahal balitz. Hori lortzeko, ezinbestekoa da lokarri berrian finkatzea Zuzendaritzarekin, irakasleekin eta tutoreekin; bestetik, kanpo-eragileen —elkarteak, erakundeak, gobernuz kanpoko erakundeak, Udala, Hezkuntza, Gazteria eta Gizarte Zerbitzuetako Zinegotzigoak, Udaltzaingoa—, eta Guardia Zibilaren Plan Zuzendariaren parte-hartzea areagotu beharra dago.

Funtsezko erronka bat dugu jolas-azturak eta jolastokien erabilerak aldatzea, ikasleen asti eta aisialdian, horietantxe garatzen eta finkatzen direlako, babes-bazterketa, tratu on-txar, gatazka-konponketa, berdintasun-diskriminazio eta genero-indarkeriaren mekanismoekin hertsien loturiko jokabideetako batzuk.

Agerkari hau gauzatu ahal izan da Garapenerako Nazioarteko Kooperazioaren Agentzia Espainiarraren (AECID), finantza-laguntzari esker, hurrengo itunaren kontura: “Movimiento por la educación transformadora y la ciudadanía global en el ámbito de la educación formal (14-CO1-642 kodea)”. Agerkari horen edukiaren erantzukizuna Oxfam Intermón-ena baizik ez da eta ez du AECID-en iritzia nahitaez adierazten.